



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATE-BEKEN ESKAERA AURKEZTEARI BURUZKO OHIKO GALDERAK (2026-2027 IKASTURTEA)

1.	Norengana jo behar dut nire zalantza guztiak argitzeko?	2
2.	Internet-eko zein nabigatzaile erabili behar dut?	2
3.	Zein erabiltzaile eta pasa-hitz erabili behar ditut.....	2
4.	Nola funtzionatzen du BakQ-ek?	2
5.	Nola lor dezaket BakQ?	3
6.	BakQ bat eska dezaket hirugarren baten izenean?	4
7.	BakQ daukat, baina pasahitza ahaztu zait, koordenatuak... ..	4
8.	BakQ badaukat, non eta nola egin behar dut eskaera?	4
9.	Eskaera egin dezaket oraindik unibertsitatean matrikulatu ez arren?.....	4
10.	Eskaera egiten ari naiz, baina ez dauzkat nahitaezko dokumentu guztiak. Amaitu dezaket?	5
11.	On-line eskaera betetzen ari naiz, baina arazo teknikoak ditut. Norengana jotzen dut?5	
12.	Zer pertsona sartu behar ditut bizikidetza-unitatean?	5
13.	Senideak elkarbizitza-unitatearen erlaitzean altan ematen saiatzen ari naiz, baina akatsa ematen du eta ezin ditut sartu.	6
14.	Ez ditut matrikulatuta nagoen ikasketak aurkitzen, zer egin dezaket?	6
15.	Nola baieztatu dezaket eskaera behar bezala amaitu dudala?	7
16.	Eskaera bukatu eta izenpetu, baina datu inportanteren bat aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?	7
17.	Beka eskaera unibertsitate bat aukeratuz egin dut, baina azkenean beste batean onartu naute eta ikasketak eta/edo unibertsitatea aldatuko ditut. Zer egin behar dut?	8
18.	Zer dokumentu aurkeztu behar ditut beka-eskabidean?.....	8
19.	Zer epe daukat eskabidea aurkezteko?	10

1. Norengana jo behar dut nire zalantza guztiak argitzeko?

- Web orrian [unibertsitate bekei](#) buruzko informazio guztia zehatz-mehatz aurkituko duzu, eta baita zure eskaera osatzeko sarbidea ere, “[Eskabidea eskuratzea](#)” sakatuz.
- Zure unibertsitateko edo goi-mailako ikasketa-zentroko beka-zerbitzura ere jo dezakezu.
- Herritarrari arreta emateko zerbitzu orokorraren gisa, Zuzenean Zerbitzua (012 edo 945-018000 telefonoa) da zure erreferentzia.
- Kontsultak posta elektronikoz ere bidal ditzakezu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus.

2. Internet-eko zein nabigatzaile erabili behar dut?

Mozilla Firefox nabigatzailearekin eta Windows ingurune batean, edozein bertsiotan, diseinatuta eta optimizatuta dago aplikazioa. Ordenagailuan doan deskargatu eta instalatu ahal izango duzu. Bestalde, **Google Chrome** nabigatzailearekin ere optimizatuta dago, eta **Microsoft Edge** nabigatzailea bateragarria da. Beken aplikazioa ez da bateragarria Internet Explorer-ekin. **Telefonoz izapiderik ez egitea** gomendatzen dizugu, arazoak sortzen baitira.

3. Zein erabiltzaile eta pasa-hitz erabili behar ditut

Eskabidea elektronikoa da oso-osorik, eta nahitaezkoa da baliozko ziurtagiri elektronikoa bat izatea. Esteka honetan duzu [identifikazio elektronikorako baliagarri diren bitartekoei buruzko informazio guztia](#).

Oraindik ziurtagiririk ez baduzu, [BakQ](#) ateratzea gomendatzen dizugu. Doako identifikazio elektronikorako bitarteko hori oso erraza da erabiltzeko, eta administrazioekin telematikoki harremanetan jartzeko aukera ematen du. Ziurtagiri hori erabiltzeko ez duzu txartel-irakurgailurik beharko.

BakQ ez den ziurtagiri bat erabili behar baduzu, [idazkidesktop](#) ordenagailuan instalatu beharko duzu. Era berean, garrantzitsua da gogoratzea Idazkik ez duela gailu mugikorren sinadurarik onartzen NFCren bidez (irradi-maiztasun bidezko identifikazio-teknologia, NANaren azken bertsioetan eskuragarri dagoena). Kasu horietan, konexioa beharko da txartel-irakurgailu baten bidez.

4. Nola funtzionatzen du BakQ-ek?

Pertsona fisikoak identifikatzeko bitarteko bat da, autentifikaziorako eta sinadura elektronikorako; oso erraza da erabiltzeko, eta ez du euskarri berezirik behar; beraz, edozein gailu elektronikotatik erabil daiteke. Honako hauek osatzen dute:

- Identifikatzaile bat, erabiltzailearen NAN/AIZarekin bat datorrena.
- 8 karaktereko pasahitz bat.
- 16 posizioko koordinatu-joko bat, 2021eko otsailaren 2a baino lehen eskatu baduzu, edo SMS bidez zure telefono mugikorrera bidalitako kode bat.

Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan eta ezer instalatu beharrik gabe. Gainera, BakQ bat eskatzeak Bak ere erabiltzeko aukera ematen du, baina kontuan izan Bak ez dela baliozkoa eskaera sinatzeko, BakQ bakarrik. Identifikazio-bide horri buruzko informazio guztia [Izenperen](#) webgunean duzu.

5. Nola lor dezaket BakQ?

BakQ eskatzeko [hiru modu](#) dituzu:

- [Online](#) Izenperen herritarren ziurtagiria baduzu (txartel berdea), aurrez aurre lortua, edo NAN elektronikoa baduzu, online eska dezakezu zure BakQ.
- [Urrunetik](#), bideo-identifikazioaren bidez.
- [Aurrez aurre](#) jarritako arreta-guneren batean. Ia 600 daude: unibertsitateak, kzguneak, gizarte etxeak eta beste erakunde batzuk.

Jarraian, aurrez aurreko eskabidea egiteko zentro erabilgarriak zehaztuko dizkizugu:

➤ Unibertsitateak (Unibertsitate bakoitzeko ikasleentzat bakarrik)

UPV	BILBAO – SARRIKO (Abuztuaren 12tik 23ra itxita, biak barne) Larrako Etxea Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoa	09:00-13:00	946017120
	ARABA (Abuztuaren 5etik 16ra itxita, biak barne) Errektoreordetza (Vitoria-Gasteiz) Comandante Izarduy,2 Vitoria	09:00-13:00	945014444
	GIPUZKOA (Abuztuaren 5etik 16ra itxita itxita, biak barne) Akademia kudeaketako bulegoa (Donostia) Ignacio María Barriola Zentroa	09:00-13:00	943018141
Deusto	Deusto unibertsitatea - Campus Bilbao Beken Zerbitzua Avenida de las Universidades, 24	Goizez: 9:00 – 13:00 Arratzalde: Bilbo 15:00-17:00 (ostiralak izan ezik) eta Donostia 14:30-16.00 asteartetan eta ostegunetan. Uztaila: goizez bakarrik Abuztua: itxita	
	Deusto unibertsitatea - Campus Donostia Beken Zerbitzua Camino Mundaiz, 50		
Mondragon Unibertsitatea	Unibertsitate honetako ikasleek ez dute BakQ atera beharrik, matrikula egiteko duen ziurtagiria (SIA) erabil baitezakete.		

➤ KZguneak

KZguneak eskuragarri daude Euskadiko udalerri askotan. Hurbilen duzuen KZgunearen benetako egoera ikus dezakezue: <https://www.kzgunea.eus/eu/zentroak>

➤ **Gizarte etxeak eta beste erakunde batzuk**

Udal, foru aldundi eta gizarte etxe askotan lor dezakezu. Kontsulta ezazu zentrorik hurbilena hemen: [BakQ eskabide-puntuak](#).

6. BakQ bat eska dezaket hirugarren baten izenean?

Ez, hirugarren pertsona batek ezin du inola ere BakQ baten eskaera beste baten izenean izapidetu, ezta legezko, tutoretzako edo antzeko ordezkaritza kasuetan ere. Kasu horietan, ordezkariak BakQ eskatu beharko du, eta ordezkaritza lehen pertsonan gauzatu, dagokion zerbitzuaren aurrean.

7. BakQ daukat, baina pasahitza ahaztu zait, koordinatuak...

BakQren kudeaketa guztiak kudeaketa-tresnen ataritik egin daitezke:

<https://servicios.izenpe.com/jbbak/mostrarWelcome.do>

8. BakQ badaukat, non eta nola egin behar dut eskaera?

Hezkuntzako [web orrira](#) joan behar duzu, unibertsitateko beken atalera. "[Eskabidea eskuratzea](#)" sakatu behar duzu, eta zure ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu.

Hortik aurrera, urrats hauek egin behar dituzu:

- ✓ Eskabide berri bat sortzea.
- ✓ Aurreko ikasturtean beka eskatu baduzu, izapideak egiteko beharrezkoak diren aurreko eskabideko senide guztiak agertuko dira. Ondoren, editatu, ezabatu edo gehitu ahal izango duzu, baina nortasun-agiriekin akatsak eta arazoak saihestuko dituzu.
- ✓ Fitxa guztiak datu pertsonalekin, familiakoekin eta akademikoekin osatzea.
- ✓ Zure espedienteari erantsi eskabide-inprimakian zehaztutako nahitaezko dokumentu guztiak. Ez dituzu berriro igo beharko aurreko ikasturtean sartu zenituen dokumentu iraunkorrak.
- ✓ Eskabidea elektronikoki sinatu zure ziurtagiri digitalarekin.
- ✓ Eskabidearen aurkezpen-data eta erregistro-zenbakia dituen egiaztagiria deskargatu.
- ✓ Eskaera "Zirriborroa amaitu gabe" egoeran jarraitzen badu, ez dago behar bezala aurkeztuta eta ez du inolako baliorik, datuak osatu badituzu ere.

Harremanetarako helbide elektroniko bat eta telefono zenbaki bat baino gehiago jartzea gomendatzen da.

9. Eskaera egin dezaket oraindik unibertsitatean matrikulatu ez arren?

Bai, eskaera egin dezakezu, nahiz eta matrikula unibertsitatean edo goi-mailako ikasketen zentroan formalizatu ez, baldin badakizu zer ikasketa egingo dituzun eta non. Ondoren ikasketa- edo

unibertsitate-aldaketa bat egiten baduzu, aldaketa horren berri eman ahal izango duzu eskabidean bertan, "**Dokumentuak aldatzea/aurkeztea**" aukeraren bidez, "Ikasketak aldatzea" hautatuz.

10. Eskaera egiten ari naiz, baina ez daukat nahitaezko dokumentu guztiak. Amaitu dezaket?

Bai, eskaera amaitu dezakezu, nahiz eta nahitaezko dokumentu guztiak erantsi ez. Eskuragarri dituzunean, edozein unetan igo ahal izango dituzu zure espedientera, "**Dokumentuak aldatzea/aurkeztea**" fitxaren bidez, betiere zure eskaera aztertzen ari bada.

Ez badituzu aurkezten zure eskabidea izapidetu aurretik, jakinarazpen elektroniko bat bidaliko zaizu dokumentu horiek eskatzeko, eta 10 egun balioduneko epea izango duzu zure espedientera igotzeko. Horretarako, zure ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu eta sinatu beharko duzu.

11. On-line eskaera betetzen ari naiz, baina arazo teknikoak ditut. Norengana jotzen dut?

- Lehenik eta behin, ziurtatu **Firefox Mozilla, Google Chrome** edo **Microsoft Edge nabigatzaileak** erabiltzen ari zarela, aplikazioak arazoak sor baititzake beste nabigatzaile batzuekin.
- **Telefonoz izapiderik ez egitea gomendatzen dizugu**, arazoak sortzen baitira.
- Arrazoi hori ez bada, saia zaitez **eskaera beste une batean** egiten, batzuetan beken aplikazioa blokeatu egin baitaiteke.
- Azkenik, **Zuzenean** Zerbitzura dei dezakezu (012 / 945 0180 00), arazoa zein den egiazta diezazuten. Ezin badute konpondu, zure deia Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko Zuzendaritzara desbideratuko da.
- **Sinadura elektronikoarekin arazoak badituzu**, erabiltzaileentzako arreta-zentroarekin harremanetan jar zaitezke 945 016 290 / 900 840 123 telefonoen bidez edo mezu elektroniko bat bidaliz helbide honetara: cau-izenpe@izenpe.eus
- Mezu elektroniko bat ere bidal dezakezu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus. Azaldu zein den arazoa zehatz-mehatz eta erantsi errorearen pantaila-kaptura. Zure NANA eta izen-abizenak ere adierazi behar dituzu.

12. Zer pertsona sartu behar ditut bizikidetza-unitatean?

Ondorengo arauak kontuan izan behar dituzu:

- **Aurreko ikasturtean beka eskatu baduzu**, zure bizikidetza-unitatea osorik agertuko da. Gehitu, editatu edo ezabatu ahal izango duzu, baina gomendatzen dizugu gurasoak ez ezabatzea, nahitaez sartu behar direlako, nahiz eta horietako bat ez den ohiko etxebizitzan bizi.

- **Aurreko ikasturtean bekarik eskatu ez baduzu:** gehitu zure bizikidetza-unitateko kide guztiak, 2025eko abenduaren 31ko errolda kolektiboan agertzen diren bezala, nahiz eta dagoeneko zurekin bizi ez.
- **Dibortzioaren kasuetan, derrigorrean** sartu behar dira aita eta amaren datu pertsonalak, eskatzailearekin erroldatuta egon ez arren. Kasu horretan, ezinbestean aurkeztu behar dira dibortzioaren sententzia eta hitzarmen arautzailea.
- **Gurasoren bat hiltzen bada,** heriotza-ziurtagiria aurkeztu beharko duzu, zure eskabidean dagoeneko agertzen ez bada.
- **Ez ahaztu kide guztien datu guztiak osatzea,** eskatzailearen barne (egoera zibila, desgaitasuna eta abar bezalakoak). Gehitu, editatu eta ezabatu aukerak dituzu.
- Ez ahaztu hau: unibertsitate- edo goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko **beka eskatu duen anaia-arrebaren bat** baduzu, adieraz ezazu, behar den dedukzioa aplikatu dadin.

13. Senideak elkarbizitza-unitatearen erlaitzean altan ematen saiatzen ari naiz, baina akatsa ematen du eta ezin ditut sartu.

Pantailaren testua berriro irakurri eta identifikazio-agiri zuzena (NANa, komunitario europarra edo bizileku-baimena) erabiltzen duzula egiazta ezazu.

Berriro saia zaitez eta, akatsak jarraitzen badu, email bat bidali beharko duzu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus, derrigorrean sartu beharreko informazio honekin:

- **Mezuaren gaia:** senideei alta ematea.
- Zure NIEren edo NANaren kopia eskaneatua, bi aldeetatik.
- Bizikidetza-unitatean sartu nahi duzun pertsonaren kopia eskaneatua.
- Sartu nahi duzun pertsonaren egoera zibila eta lanbidea.
- Email-a eta harremanetan jartzeko telefonoa.

Unibertsitate Komunitatea Artatzeko eta Zaintzeko Zuzendaritzak egiaztatuko ditu datuak, altan emango ditu senideak eta eskaera bukatu ahal izateko abisu emango dizute.

14. Ez ditut matrikulatuta nagoen ikasketak aurkitzen, zer egin dezaket?

- Lehenik eta behin, aplikazioan **gradu eta master ofizialak** besterik ez daudela eskura har ezazu kontuan. Unibertsitateen tituluak ez daude, ezin baitira ikasketa mota horretarako bekak eskatu.
- Betiere ibilbide hau jarraitu behar da: **unibertsitatea > campusa > fakultatea /zentroa > matrikulatuta zauden ikasketak**. Zure estudioa ere bila dezakezu, izen osoa zuzenean idatziz, eta aukera desberdinak agertuko zaizkizu, dagokiona aukeratu dezazun.
- **UPV/EHUren kasuan,** master gehienak dagozkion zentroetan aurkituko dituzu.
- Garrantzitsua da kontuan hartzea aplikazioan ikasketak egiten diren zentroa ez datorrela bat beti eskolak emango diren campusarekin.
- Beka hau ez da Lanbide Heziketako goi-mailako graduentzat.

- **Urrats hauek eman ondoren ez bada ikasketa aurkitzen**, izen ofizial zehatza eta ematen den zentroa zure unibertsitatearekin egiazta itzazu. Ikasketa ofiziala bada eta aplikazioan sartuta ez badago, email bat bidali beharko duzu helbide honetara: uni.ikasketak@euskadi.eus, derrigorrean sartu beharreko informazio honekin:
 - **Gaia:** ikasketen alta
 - Zure harremanetarako telefonoa
 - Zure izen-abizenak
 - Ikasketak egingo dituzun unibertsitatea edo zentroa
 - Egingo dituzun ikasketak

15. Nola baieztatu dezaket eskaera behar bezala amaitu dudala?

- Aplikazioa amaitu aurretik, sinadura elektronikoa eskatuko dizu, eta erregistratu ondoren, data bat eta erregistro-zenbaki bat agertuko dira.
- Eskaera behar bezala amaituta dagoenean, **"Aztertzen" egoeran** agertuko da. "Zirriborroa aurkeztu gabe" jartzen badu, amaitu ez duzula esan nahi du eta, beraz, ez du baliorik izango.
- Eskaeraren **sarrera-erregistroaren egiaztagiria deskargatu** ahal izango duzu, hau da, ondorengo edozein erreklamaziotarako ezinbestekoa den dokumentua.
- **On line inprimakiaren kopia** bat ere deskargatu ahal izango duzu, osatu dituzun datu guztiekin.

16. Eskaera bukatu eta izenpetu, baina datu inportanteren bat aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?

Tramitazioaren edozein unetan, eskabidearekin lotutako aldaketa bat komunikatu edo dokumentu berriak erantsi ditzakezu, betiere zure eskaera aztertzen ari bada. Horretarako, lehenik eta behin, zure espedientera sartu beharko duzu, sakatu **"Eskaera eskuratzea"** eta zure ziurtagiri elektronikoarekin identifikatu.

Dokumentu bat igotzeko edo aldaketaren berri emateko eman beharreko urratsak:

- **"Dokumentuak aldatu/aurkeztu"** botoian klik egin behar duzu.
- Aukeratu egin nahi duzun **aldaketa mota**:
 - Kontu-zenbakia
 - Ikasketak aldatzea
 - Bestelako aldaketak
 - Dokumentazioa aurkeztea
- Osatu koadroa zure iruzkinekin eta gorde ezazu.
- "Erantsitako dokumentuak" atalean, aukeratu igo nahi dituzun dokumentuak
- Emaiozu "Erantsi" botoiari eta, ondoren, "Aztertu" eta "Igo".
- Azkenik, sakatu 3. urratsa, aldaketa sinatzeko eta erregistratuta geratzeko.
- Dokumentuak aurkeztu edo aldatu izanaren egiaztagiria deskargatu ahal izango duzu.

17. Beka eskaera unibertsitate bat aukeratuz egin dut, baina azkenean beste batean onartu naute eta ikasketak eta/edo unibertsitatea aldatuko ditut. Zer egin behar dut?

Zure ziurtagiri elektronikoarekin dagoeneko sortu duzun beka-eskaerara sartu behar duzu, eta «Aldatzea/Dokumentuak aurkeztea» aukera erabili, eta «**Ikasketak aldatzea**» **hautatu**, eta aurreko galderan adierazitako urrats guztiak jarraitu.

18. Zer dokumentu aurkeztu behar ditut beka-eskabidean?

Ez da beharrezkoa izango eskatzaileak aurreko ikasturtean espediente elektronikoan sartu zituen **dokumentu iraunkorrak** aurkeztea, baldin eta dokumentu horietan jasotako informazioa aldatu ez badu. Dokumentu horiek izan daitezke, besteak beste, dibortzio-epaia, hitzarmen arautzailea, IBANen banku-ziurtagiria, alokairu-kontratua aldatzen ez bada, jabetza-erregistroko ohar soila, salerosketa-eskriturak, guraso baten heriotza-ziurtagiria eta desgaitasun-mailaren ziurtagiria.

Urteko espedienteari gehitu beharko zaizkio honako **aldi baterako dokumentu** hauek: errolda kolektiboa, matrikula, alokairua edo bizilekua ordaindu izanaren egiaztagiria, agiri akademiko guztiak, nazioko edo nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu izanaren justifikazioa, eta, hala badagokio, beste dokumentu batzuk.

1. Eskatzaile guztientzako nahitaezko dokumentuak, eskabidean jaso beharrekoak:

a) Egungo ikasturteko **matrikularen kopia**, graduarena edo masterrarena.

b) **Banku-ziurtagiria**, eskatzailearen libretaren edo kontu korrontearen IBAN adierazten duena (titular edo titularkide gisa agertu behar du). Ziurtagiri horren orde, libretaren kopia edo banku elektronikoaren irudia erabil daiteke, non libretaren edo kontu korrontearen titularrak eta IBAN agertzen diren.

2. Zirkunstantzia pertsonalen arabera derrigorrezkoak diren dokumentuak:

a) Interesduna dagokion egiaztapen automatizatuaren aurka agertzen bada edo egiaztapen hori ezinezkoa bada, bizikidetzaren edo familia-unitatearen ohiko bizilekuaren **errolda kolektiboa**, 2025eko abenduaren 31ko egoera jasotzen duena.

b) Dibortzioa edo banantzea gertatuz gero, nahiz eta gurasoetako bat eskatzailearekin bizi ez: **hitzarmen arautzailearen edota ebazpen judizialaren edota notario-hitzarmenaren kopia**, adostutako baldintzak zehazten dituenak.

c) Hitzarmen arautzaileak ezartzen duen **mantenu-pentsioa ez ordaintzeagatik demanda judiziala** badago, horri buruzko epailearen egungo datako ebazpena aurkeztu beharko da.

d) 2026-2027 ikasturtean ikasketak direla-eta ohiko bizilekutik kanpo bizitzeagatik **egoitza-osagaia** eskatuz gero:

- **Alokairuko kontratuaren kopia** osoa, eskatzailearen izena jasotzen duena, eta **hilabete bat ordaindu izanaren egiaztagiria**, 2026ko irailetik aurrerakoa.
- **Egoitzan erreserbatu dela egiaztatzeko agiria**, zenbatekoa jasota, eta **lehen hilabetearen zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztagiria**.

Bi kasuetan, eta beharrezkotzat jotzen badu, alokairu-hilabete gehiago ordaindu izanaren egiaztagiriak eskatu ahal izango ditu Administrazioak.

e) Bizikidetzatza- edo familia-unitatearen kide batek desgaitasuna edo mendekotasuna badu, **Foru Aldundiaren ebazpenaren kopia**, desgaitasun- edo mendekotasun- maila aitortzen duena.

f) **Independente gisa** eskaera aurkezten baduzu (gurasorik gabe):

- 2025eko abenduaren 31an datako **ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratua**. Etxebizitza jabetzan badu, ez da ezer aurkeztu behar.
- Emantzipazio-programa batean parte hartzen dela **egiaztatzeko ziurtagiria**, Administrazio kudeatzailearena.

3. Derrigorrezko agiriak, zirkunstantzia ekonomikoen arabera:

a) Ez da beharrezkoa izango diru-sarrerak egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea, **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) aitorpena** 2025ean egin bada, Eusko Jaurlaritzak zuzenean kontsulta egingo baitio Zerga Administrazioari. Baina, salbuespen gisa, diru-sarrera, ondare eta bizibide guztiei buruzko dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango zaie eskatzaileei, baldin eta elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez informaziorik lortu ezin izan bada.

b) Kide konputagarriren batek 2025eko **errentaren aitorpena** beste autonomia erkidego batean aurkeztu badu, adierazpen horren kopia bat aurkeztu beharko du.

c) Sustengatzaile ekonomiko nagusietako batek 2026an langabezia, enplegu-erregulazioko espedientea, aldi baterako lan-erregulazioko espedientea edo jarduera-itxierako egoera bat izan badu: egoera hori egiaztatzen duen **SEPEaren edo enpresaren dokumentua**.

d) Errentari lotutako oinarritzko zenbatekoa jaso ahal izateko, 2025eko zerga-ekitaldian, gutxienez hiru hilabetez, erabilgarri dauden **gizarte-laguntzetako bat** kobratu izana egiaztatu beharko da (DSBE, EPO, GLL, GSINen laguntzak, langabeziagatiko sorospena, etab.).

4. Zirkunstantzia akademikoen arabera derrigorrezkoak diren dokumentuak:

a) **Unibertsitatez aldatu diren** eta Euskadin eta kanpoan matrikulatuta dauden ikasleak:

- **Masterra**: ziurtagiri akademikoen kopia osoa, sarbidea ematen dion graduaren batez besteko notarekin.
- **Gradua**: aurreko ikasturteko ziurtagiri akademikoa, batez besteko nota jasotzen duena.

b) **Batxilergotik sartzen diren 1. mailako ikasleak**: unibertsitatean sartzeko notaren ziurtagiri akademikoa.

c) **Batxilergotik sartzen ez diren 1. mailako ikasleak:** ikasketetara sartzeko aukera ematen dien titulazioaren espediente akademikoa aurkeztu beharko dute eta titulazio horretan batez besteko nota agertuko da.

d) Eskatzaileak nazioarteko edo Estatuko **mugikortasun-programetan** parte hartzen baldin badu, parte-hartzea ziurtatzeko agiria, egunak eta egoitza-lekua adierazita.

e) **Matrikula partzialaren salbuespena** eskatzen bada, ikasketak lan-jarduerarekin bateratzen direla egiaztatzeke agiriak (lan-kontratuak, lan-bizitza...).

f) Osasunari buruzko arazoak direla-eta **etekin akademikoan salbuespena** eskatzen bada, osasun-sare publikoko mediku espezialistaren ziurtagiria.

5. Kasu batzuetan beharrezkoak izan daitezkeen beste dokumentu batzuk:

a) Unibertsitateak berak edo beste erakunde batzuek emandako **ikasketa-laguntzen** ziurtagiriak.

b) Bizikidetzeta-unitatearen kide batek bere kontura egiten badu **jarduera ekonomikoa bere jabetzako lokalen batean**, jarduera 2025eko ekitaldi fiskalean higiezin horretan helbideratuta zegoela egiaztatu beharko da.

c) **Ondasun higiezin batzuen jabetza soila** justifikatzeko, Jabetza Erregistroaren ohar soil bat aurkeztu beharko da, gaur egungoa.

d) Jasotako diru-sarreraren zati bat prestakuntza dualetik datorrela justifikatzeko, **unibertsitate-prestakuntza dualari** dagokionez aurkeztu beharko dira: prestakuntza-zentroak emandako ziurtagiri bat, horretan prestakuntza egiaztatuko da eta ikasketak Unibasq edo Estatuko beste kalitate-agentzia batzuen zigilu duala duen; baita 10-T ere, heziketa dual horretatik datozen diru-sarrerak justifikatzeko. **Lanbide heziketa dualari** dagokionez, aurkeztu beharko dira: prestakuntza-zentroak emandako ziurtagiri bat, prestakuntza egiten ari den enpresa zehaztuta; baita 10-T ere, heziketa dual horretatik datozen diru-sarrerak justifikatzeko.

e) Kide konputagarrietako **batek laneko diru-sarrerak dituenean, baina errenta-aitorpena egin ez duenean, horretara behartuta ez dagoelako**, gomendatzen da 10-T aurkeztea gastu kengarriak deskontatu ahal izateko 17.3.b artikuluan adierazten den bezala, datu horiek ezin baitira lortu elkarreragingarritasun-kontsultetan.

Aurkeztutako dokumentaziotik Administrazioak ezin izan duenean ondorioztatu eskaera izapidetzeko beharrezkoa den alderdi bat, bitarteko telematikoen bidez lortu ezin izan den beste edozein agiri eskatu ahal izango da.

19. Zer epe daukat eskabidea aurkezteko?

Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta **hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko irailaren 16an amaituko da.**

Salbuespen gisa, eskatzaileek 1. puntuari adierazitako epea amaitu ondoren hasten diren ikasketak egiten badituzte, beka-eskaera **matrikula-dataren ondorengo 5 egun baliodunetan** egin ahal izango da. Hala ere, pertsona guztiei gomendatzen zaie eskaera epe orokorrean egitea, hau da, 2026ko irailaren 16a baino lehen.



Eskaerak aurkezteko epea 2026ko irailaren 16an amaitzen denean, ezin izango dira zirriborroak berriro editatu. Salbuespenezko epeaz baliatu nahi duten pertsonek beste eskaera bat hasi beharko dute.

Ez da inola ere onartuko 2026ko abenduaren 31tik aurrerako beka-eskaerarik. Eskatzaileek 2026ko abenduaren 31 baino geroagoko matrikula-epea duten ikasketak egiten badituzte eta ikasturte honetan bekarik eskatu ezin badute, 2027-2028an eskatu ahal izango dute, betiere ikasketa horiek 2028ko ekaina baino lehen amaitzen badira.